



# DEFENTSORIA

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako*  
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres



EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTEHARTZEA JENDARTEAN GERO ETA BERDINAGOA DA. ERA BEREAN, ADIERAZLE BATZUEK AGERIAN UZTEN DUTE ZENBAIT OZTOPO DAUDELA BENETAKO BERDINTASUNA ETA BERDINTASUN ERAGINKORRA LORTZEKO. HORI DELA ETA, BALIABIDE PUBLIKO BATEN BEHARRA DAGOELA IKUSI DA, SEKTORE PRIVATUAN SEXUAGATIKO EDOZEIN BEREIZKETA-MOTAREN EGOEREN AURREAN HERRITARRAK DEFENDATZEKO ORGANO IZAN DADIN.

LA PARTICIPACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES EN LA SOCIEDAD ES PROGRESIVAMENTE MÁS IGUALITARIA. PARALELAMENTE CONTAMOS CON INDICADORES QUE DELATAN DIFICULTADES HACIA LA IGUALDAD REAL Y EFECTIVA. ESTO HA PUESTO DE MANIFIESTO LA NECESIDAD DE UN RECURSO PÚBLICO QUE SIRVA COMO ÓRGANO DE DEFENSA DE LA CIUDADANÍA ANTE SITUACIONES DE DISCRIMINACIÓN POR RAZÓN DE SEXO EN EL SECTOR PRIVADO.



A light gray silhouette of the Basque Country is centered on the page. The text is overlaid on this map. The top section is in Basque, and the bottom section is in Spanish.

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEFENTSA ERAKUNDEA

Erakunde publikoa eta doakoa da, independentea, Euskal Autonomia Erkidegoan sektore pribatuan sexuagatiko edozein bereizketa-motaren aurrean —zuzeneko zein zeharkakoa— hiritarrak defendatzeko; otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki sortua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta 119/2006 Dekretuak arautua.

## LA DEFENSORÍA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES


Es un órgano público y gratuito, de carácter independiente, de defensa de las ciudadanas y ciudadanos ante situaciones de discriminación directa o indirecta por razón de sexo en el sector privado de la Comunidad Autónoma de Euskadi, creado en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y regulado por el Decreto 119/2006.

## ZEIN FUNTZIO BETETZEN DITU?

- Sektore pribatuan sexuagatiko zuzeneko zein zeharkako bereizketa egoerak ikertu eta argitu.
- Sektore pribatuan bereizketa egoerak edo jarduerak zuzentzeko gomendioak eman.
- Herritarrei aholkuak eta laguntza eman.
- Sexu-jazarpen kasuetan, konponbiderako bide izan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan bazterketaren aurkako arautegia betetzen dela ebaluatu.
- Koordinazio-mekanismoak garatu eta negoziazio-bideak erraztu.

## ¿CUÁLES SON SUS FUNCIONES?

- Investigar y esclarecer situaciones de discriminación directa o indirecta por razón de sexo en el sector privado.
- Dirigir recomendaciones para corregir situaciones o prácticas discriminatorias en el sector privado.
- Prestar asesoramiento y asistencia a la ciudadanía.
- Servir de cauce para la solución de casos de acoso sexista.
- Evaluar el cumplimiento de la normativa antidiscriminatoria en materia de igualdad de mujeres y hombres.
- Desarrollar mecanismos de coordinación y facilitar vías de negociación.



## NORK JASO DEZAKE LAGUNTZA? ¿QUIENES PUEDEN ACUDIR?

- Sexuagatik baztertua izan dela pentsatzen duen edozein pertsonak edo pertsona-taldek, edo haien ordezkari legitimoek, egin dezake kexa.
- Cualquier persona o grupo de personas que se considere discriminada por razón de sexo, o quienes legítimamente les representen, pueden presentar una queja.
- Bai eta emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen dela zaintzea helburuetako bat duten elkarte, erakunde eta bestelako pertsona juridikoek ere.
- Y también aquellas asociaciones, organizaciones y otras personas jurídicas que tengan entre sus fines velar por el cumplimiento del principio de igualdad de trato de mujeres y hombres.

## ZEIN DIRA MUGAK?

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak ezin izango du parte hartu egoera hauetan:

- Salaketa sektore publikoari dagokionean.
- Epai judiziala ebatzi denean, edo ebazpenaren zain dagoenean edo Auzitegiaren aurrean salaketa jarri denean.
- Kexa eragiteko moduko jarrera edo gertaera izan zenetik urtebeteko epea pasa bada.
- Kaltetu gisa kexa jarri duena nor den jakin ezin denean.
- Bere eskumenaren eremutik kanpo dagoenean.
- Zigorrak ezartzen direnean. Zigortzeko ahalmena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari (arauhauste arina bada) eta Gobernu Kontseiluari (arauhauste larria bada) dagokie; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen ikerketa-lana oztopatu, zaildu edo ukatzen dutenei ezarriko zaie, eta/edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 26.1, 26.2, 30.1 eta 40.1 artikuluetan ezartzen diren betebeharrak eta debekuak hausten dituztenei.

## ¿CUÁLES SON SUS LÍMITES?

La Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres no podrá intervenir en las siguientes situaciones:

- Cuando la demanda se refiera al sector público.
- Cuando se haya dictado sentencia judicial, se encuentre pendiente de resolución o se haya interpuesto demanda ante los Tribunales.
- Cuando haya transcurrido un año desde que cesó la conducta o hechos susceptibles de motivar la queja.
- Cuando no se identifique quién formula la queja como persona afectada.
- Cuando no esté relacionada con el ámbito de su competencia.
- Cuando se apliquen sanciones. La potestad sancionadora corresponde a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer (en caso de infracciones leves) y al Consejo de Gobierno (en caso de infracciones graves) que se aplicará a quienes hayan dificultado, obstruido o negado a la acción investigadora de la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres y/o hayan contravenido las obligaciones y prohibiciones establecidas en los artículos 26.1, 26.2, 30.1 y 40.1 de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

## NOLA EGIN KEXA?

Datu pertsonalak eman behar dira (izena, abizenak, helbidea, telefonoa, NAN), baliagarriak izan daitezkeen agirien kopiak, eta kexaren arrazoia zein den eta noren aurka aurkezten den azaltzen duen idatzi sinatua (erakundearen izena, helbidea, telefonoa eta ordezkariaren izena).

- Gutun bidez, helbide honetara:  
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO  
DEFENTSA ERAKUNDEA  
Portal de Castilla, 25  
01008 Gasteiz
- Posta elektronikoz, helbide honetara:  
**defentsoria@ej-gv.es**
- Fax bidez, zenbaki honetara: **945 01 65 51**
- Eskura, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen egoitzan. Ordutegia honako hau da:
  - Astelehena-osteguna: 9:00-13:00; 15:00-16:30
  - Ostirala: 9:00-14:00
  - Ekaina-iraila: 9:00-14:00

## ¿CÓMO PRESENTAR UNA QUEJA?

Aportando datos personales (nombre, apellidos, dirección, teléfono, DNI) copias de documentos útiles y un escrito firmado explicando el motivo de la queja y contra quién se presenta (nombre de la entidad, dirección, teléfono y persona representante).

- Por carta a la dirección:  
DEFENSORÍA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES  
C/Portal de Castilla, 25  
01008 Vitoria-Gasteiz
- Por correo electrónico a la dirección:  
**defentsoria@ej-gv.es**
- Por fax, al número **945 01 65 51**
- En persona, en la sede de la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el siguiente horario:
  - Lunes- jueves: 9:00-13:00; 15:00-16:30
  - Viernes: 9:00-14:00
  - Junio-septiembre: 9:00-14:00



“LA COMISIÓN EUROPEA INFORMA QUE HAY CAMBIOS ALENTADORES EN LA IGUALDAD DE GÉNERO. SIN EMBARGO, CASI LA TOTALIDAD DE LAS PERSONAS QUE TRABAJAN SIN CONTRATO EN EL MERCADO LABORAL EN EL PAÍS VASCO SON MUJERES; EL SALARIO/HORA DE LAS MUJERES ES INFERIOR AL DE LOS HOMBRES; LA PRECARIEDAD EN EL EMPLEO, UN MAYOR NÚMERO DE CONTRATOS TEMPORALES Y MENOR TASA DE OCUPACIÓN, LA ESCASA VISIBILIDAD DE LAS MUJERES EN PUESTOS DE DIRECCIÓN, ETC., SON RESULTADO DE LA DISCRIMINACIÓN CONTRA LAS MUJERES Y QUE CON MAYOR FRECUENCIA Y GRAVEDAD SE PRODUCEN EN EL SECTOR PRIVADO.”

Maite Erro Jauregi

*Defensora para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la CAE. 2006*



# DEFENTSORIA

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako*  
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

C/ Portal de Castilla, 25 | 01008 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 65 50 | Fax: 945 01 65 51

[defentsoria@ej-gv.es](mailto:defentsoria@ej-gv.es)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO